

# FAMILIA ARTEAN

## NIRE FAMILIAREN GPSA

### SAIOA 7 URRATSETAN

1. AURKEZPENA
2. EGUNEROKO SINBOLOAK
3. BIZIPENA
4. JAINKOARI ENTZUN
5. ALKARRIZKETAN JARDUN
6. OTOITZEAN ADIERAZO
7. ETXERA EROAN...



# 1. AURKEZPENA

Saio honetan, galdera egingo dogu gure familia bizitzaren norabideaz. Non dago nire familia? Nora doa nire familia? Zeintzuk dira gure familia bizitza gidatzen daberen balioak?

Aukera gitxi izaten dogu, gelditu eta gauza honeetan pentsatzeko. Are gitxiago, horren inguruan familiako kideen artean eta beste familia batzukaz konfiantzaz jarduteko. Eguneroko erritmoak, eguneroko bete-behar eta ardurek, batzuetan, gura ez dogun lekura garoiez. Sarritan, arma-arma-sareak korapilatu eta geuk ez dakigun lekura garoazala emoten dau. Ez gara geure bizitzaren jabe sentitzen, ur-lasterrak aurrean garoazala emoten dau.

“Nire familiaren GPSa” saio honen helburua, hain zuzen be, pentsarazotea da: benetan non gagozan, ze balorearen arabera bizi garan, gure seme-alabei ze balore transmititzen deusegun pentsatu. GPSa, kokalekua zehazteko, non gagozan jakiteko sistema da. Baita norabidea finkatzeko sistema erabilgarria be. Kristau proposamenak norabide jakin bat aurkezten norabide jakin bat erakusten deusku, Ebanjelioarena, hau da, errealitatea Jesusek lez ikusteko, baloratzeko eta bizitzeko estiloa. Zuen familia bizitzaren agintea hartzea da proposamena. Benetan joan gura dozuen lekura, familian, batera, joan gura dozuen lekura joan.

## GIZA DOMINOA

1. Alkarregaz berbetan jardunez, izena eta gure aisialdian, oportretan egitea gustatzen jakun pare bat gauza esango deusagu alkarri.
2. Giza dominoa eratuko dogu: batera jarri doguzan datuak kontuan hartu eta nire gustu berak dituan norbait bilatuko dogu ezker-eskuin.
3. Zirkuluan amaituko dogu eta eskuman eta ezkerrean gure antzeko gustuak dabezan personak izango doguz. Txandaka, izena eta eskumako eta ezkerreko lagunagaz bat gatozan gustua esango doguz.

Jokoaren dinamika ikasi ondoren, hartu-emonerako egokiak diran gai pertsonalagoak aukeratu daitezke. Esate baterako, zer itzaroten dogun ‘nire familiaren GPSa’ jardueratik.



## 2. EGUNEROKO SINBOLOAK

### NIRE FAMILIAREN GPSa



### ZER DA GPSa?

GPSa, kokalekua zehazteko, nabigatzeko sistema mundiala da.

Zelan funtzionatzen dau GPSak?

“... sateliteek gidatzen gaitue”, entzun dogu askotan; gaian adituan diranek darabilen esaldia da, baina...

GPS sateliteek gure kokapena zehazten dabe eta baliagarriak dira gure ibilbidea bideratzeko. Hainbat gauza behar da sistemak funtzionatu daian:

- Satelitea.
- Hargailua. Modelo ugari eta anitz dago.
- Antenak, sateliteen seinalea hartzeko.
- Elikatze-sistema.

#### Gure familiak badau GPSrik

- Badakigu non gagozan?
- Nora joan gaitkezan?
- Badogu jomugarik?

Hauxe izan da, da eta izango da gizadiaren kezkarik esanguratsuenetakoa eta, zalantza barik, hasieratik, Nazareteko Jesusen jarraitzaileen kezka

- Funtzionatzen ete dau gure eta gure familiaren GPSak?


## 3. BIZIPENA

### KRISTAU FAMILIAREN GPSan

Zein da gure “SATELITEA”?... “JESUS”

Zein da hargailua?... **GURE FAMILIA**, baina ez danak bardinak, danak desbardinak, bakarrak...

Zeintzuk dira antenak?... **FAMILIAKO KIDEAK** eta gutariko bakotzak jasoten dau “SATELITEAREN” seinalea



Zein da gure elikatze-sistema?... **ALKARTEA**

Guzti hori ezinbestekoa da GPSak funtzionatu daian... interferentziak izan daikeguz, edo antena guztiak ez dira ondo bideratuta egongo, elikatze-sistemak akatsak izan daikez... hausnartu daigun guzti horren inguruan... konturatu gaitезan... zelakoa da gure GPSa?... (hausnarketa)...

## 4. JAINKOARI ENTZUN

San Lukas 24, 13-35 pasartea irakurriko dogu. Emauseko bidea

Egun haretan bertan, ikasleetako bi Emaus izeneko herrixka batera joiazan, Jerusalemetik hamaika kilometrora. Gertakari guztioz berbetan ari ziran alkarregaz. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirala, Jesus bera ondoratu jaken eta eurakaz joan zan. Baina ikasleek begiak itsu ebezan eta ez eben ezagutu.

Jesusek esan eutsen: «Zeri buruz zoaze bidean alkarregaz berbetan?» Hareek gelditu egin ziran, arpegia ilun.

Eta euretako batek, Kleofas zeritzanak, honela erantzun eutsan: «Zeu izango zara egun honeetan Jerusalemen gertatu dana jakin ez dauan kanpotar bakarra!».

«Zer gertatu da, bada?» –esan eutsen harek.

Hareek erantzun eutsen: «Jesus Nazaretarrarena; profeta handia zan hitzez eta egitez Jainkoaren eta herri osoaren begitan; baina gure abadeburu eta agintariek heriotzara kondenatu dabe eta kurrutziltzatu.

Guk uste genduan berak askatuko ebala Israel; baina badira hiru egun hori gertatu dala. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik itzi gaituela: goizean goiz joan dira hilobira eta ez ei dabe gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dala esan deusien aingeru batzuk agertu jakezala esanez etorri jakuz. Gutako batzuk be izan dira hilobian eta emakumeek esan lez aurkitu dabe guztia; baina bera ez dabe ikusi».

Orduan, Jesusek esan eutsen: «Bai buru gitxikoak zariela, bai motelak profetek esana sinisteko! Ez ete eban Mesiasiek guzti hori sufritu behar bere aintzara iristeko?».

Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek berari buruz inoen guztia azaldu eutsen.

Joiazan herrixkara hurbildu ziranean, aurrera jarraitzeko keinua egin eban Jesusek. Baina hareek arren eta arren eskatu eutsen: «Gelditu zaitez gugaz, berandu da-eta eta iluna gainean dogu».

Eta herrian sartu zan eurakaz gelditzeko.

Ondoren, alkarregaz mahaian jarri ziran, eta Jesusek, ogia harturik, bedeinkazinoa esan, zatitu eta emon egin eutsen.

Orduan, begiak ireki jakezan eta ezagutu egin eben, baina Jesus desagertu egin jaken begi aurretik. Hareek alkarri esan eutsen: «Ez ete geunkan barrua sutan, bidean Liburu Santuak azalduz mintzo jakunean?».

Berehala jaiki eta Jerusalemera itzuli ziran; eta Hamaikak eta honeen lagunak bildurik aurkitu ebezan, honan inoela: «Egia da! Biztu da Jauna eta Simoni agertu jako». Ikasle biek bidean gertatua eta zelan ogia zatitzean ezagutu eben kontatu eutsien.



1. Kontu egin pasarteaz: burumakur joiazan, triste... Galduta egozan...
2. Zelan emoten deutse agertzera bere burua Jesusek?
3. Zelan berreskuratzen dabe fedea eta bizi-poza?
4. Zein da hemen GPSa? Eta gure familietan?

## 5. ALKARRIZKETAN JARDUN... (40 MINUTU INGURU)

### NON GAGOZ?, ZEIN DA GURE KOKAPENA?

Gure ibilbideari ekin edo norabide barria emon aurretik, hainbat gauza jakin behar dogu: non gagozan, zeintzuk diran gure koordenadak, baktotxari bere familiako kide lez dagokiozanak,... eta ondoren, alkarregaz, familia lez zeintzun diran gure giltzak ikusiko dogu.

Danok ez dogu abiapuntu bera, ezta kokapen bera be. Dinamika honen azken helburua FAMILIA LEZ DOGUN KOKAPENAREN IRUDIA lortzea da. Horretarako, familiako kide baktotxa bere kokapena azaltzen laguntzen deusn GPSaren seinalea jasoten dauan antena da.


1etik 8ra markatutako 8 kokapen dituan iparrorratzak irudikatzen dau GPSa. Kokapen horreetako baktotxak, gainera, posizino bi ditu, bata iparrorratzaren nukleotik gertu dagoana eta bestea haren kanpoaldean dagoana, dualtasun lez (eduki-izan; ni-gu; e.a.).

**Dinamikaren lehenengo zatia, banakakoa izango da,** familiako kide baktotxak 8 fitxa izango ditu eta fitxa 1 ipiniko dau iparrorratzaren 8 ardatzetako baktotxean. Horretarako, lagun baktotxak ardatz baktotxerako pent-satu egingo dau. Iparrorratzaren ze ingurutik, barruko ala kanpotik, gagoz hurrago? Esate baterako, lehenengo ardatzean (ni-gu), gauzak atsegin dodazalako, ni neu ondo egoteko, egiten dodaz ala familia osoa dot gogoan?

Oharra: Helduek lagunduko deutse ume edota gazteei dinamika ulertzen, 8 jarreretan ereduak jarritz, euren fitxak ipini daiezan.

**Dinamikaren bigarren zatia familian egingo da,** familiako kide baktotxak batera jarriko daualarik bere GPSa. Alkarrizketan jardutea da kontua, baktotxa zein posiziotan dagoan ikusteko eta familia lez 8 ardatzetan ze posizino izan gura dogun adosteko.

Azkenik, familia baktotxak talde handian batera jarriko dau bizi izan dauana.



ERDIKO ZIRKULUTIK  
ALDENDUTA

GURE BIZITZA GAUZA MATERIALAK  
EUKITEAN OINARRITZEN DA ALA,  
KRISTAU PERSONAK, KRISTAU FA-  
MILIA IZATEAN?

1

EDUKI



ERDIKO ZIRKULUTIK GERTU

IZAN



GURE BIZITZA FAMILIAN, OSATZEN  
DOGUNONGAN OINARRITZEN DA  
ALA "NEURE BURUAGAN"?

2

NI



GU



EROSOTASUNEAN, 'EGINGO DA' DA-  
LAKOAN... BIZI GARA ALA HOBET-  
ZEA, KONPROMETITZEA DOGU  
ERAGILETZAT?

3

GELDO



BIZI



GURE FAMILIAK ALKARRIZKETAN  
JARDUTEN DAU, ADOSTASUNETARA  
HELTZEN DA, ENTZUN EGITEN DA  
ALA 'HEMEN NEUK AGINTZEN DOT,  
NEUK EGITEN DOT...' DALAKOA  
EZARTZEN DA?

4

ALKARRIZKETARAKO ITXITA



ALKARRIZKETARAKO IREKITA



ORAINA, BEREHALAKOA DOGU BU-  
RUAN, ALA BADOGU BAT EGINDA  
EGOTERA BIZIKIDE IZATERA GAROA-  
ZAN HELBURU EDO HELMUGARIK?

5

EPE LABURRA



EPE LUZEA



KONTUAN IZATEN DOGUZ GAINE-  
RAKO KIDEAK, EUREN EGITEKOE-  
TAN, EUREN KEZKETAN, EUREN  
POZTASUNETAN, ALA EZ DOGU HO-  
RRETARAKO ASTIRIK?

6

EMAITZAK DIRA  
GARRANTZITSUAK



BIDEA DA GARRANTZITSUA,  
ALKARREGAZ EGITEA



ZAINTZEN DOGU IZADIA ALA NA-  
HIAGO DOGU KONTSUMITZEA,  
ASKO PENTSATU BARIK GAUZAK  
BOTATZEA?

7

KONTSUMISTA



EKOLOGIKOA



GEUREAN BAKARRIK PENTSATZEN  
DOGU ALA ARDURATZEN GARA  
GURE AUZOTARREZ, GURE HE-  
RRIAZ, URRUNDUTAKOEZ, AHULE-  
NEZ...?

8


GAUZETAN OINARRITUTA



PERSONENGAN OINARRITUTA



Gure puntuaren irudia aukeratzerakoan, 5. orrialdearen azalpena kontuan hartu behar dugu.



## 6. OTOITZEAN ADIERAZO

Zelan sentitu gara ariketan? Harritu egin gaitu gure GPS mapan agertu dan irudiak?

- Eskerrak emongo doguz
- Dagokionean, parkamena eskatuko dogu

Familia lez, erronka barririk antzeman ete dogu?

- Indarra eskatuko deusagu Aita-Ama Jainkoari

### Otoitza:

#### Izan gura dodana

Berretarak zainduko dituan artzain izan gura dot,  
nekatuari gerizpea eskainiko deutsan zuhaitz hostotsu,  
egartiari edaten emongo deutsan iturri.

Isiltasunak beteko dituan abesti izan gura dot,  
urruneko zerumugak erakutsiko dituan liburu,  
bihotz hotza urtuko dauan olerki,  
istorioa idazteko paper.

Irribarre izan gura dot eremu goibeletan,  
eta lur etzeetan erneten dan hazi.  
Maitasunezko gutun, bakartiarentzat  
eta oihu ozen, gorrarentzat...

Artzain, zuhaitz edo iturri, abesti, liburu edo olerki...  
Paper, irribarre, oihu, gutun, hazi...  
Zeuk gura dozuna, Zeuk eskatzen dozuna,  
Zeuk amesten dozuna, Jauna...  
Horixe izan gura dot.



*José María Rodríguez Olaizola Sj*

## 7. ETXERA EROAN

Familiako kide bakotxak, antzemandako erronkak lortzeko asmoa erakutsiko dau. Dalako asmo hori paperean idatziko dau etxera erateko. Hozkailuan ipini iman bategaz, hartutako konpromisoa gogoan izateko eta, denporaren buruan, ebaluazinoa egingo dabe, aurrerapenik izan dan ala ez ikusteko, aurreko otoitzagaz errezatuz.